

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuaren bezeroak klima-aldaketaz kezkatzen diren pertsonak edo enpresak dira, hau da, gizarte osoa izan daiteke gure bezero potentziala, ingurugiroarekiko kontsientzia duen edonor.

Gure bezeroen ezaugarriak ezagutzeko merkatu ikerketa bat egin dugu. Bertan inkesta batez baliatu gara gure produktuaren inguruko datu gehiago izateko.

Inkestaren ondorioen artean aipatzekoa da orokorrean jendearen kezken artean ingurugiroa zaintzea dagoela. Guretzat ere arazo larria da. Bestalde, bi bezero mota daudela aztertu dugu, alde batetik, bere kutsadura neurtu eta kontrolatu nahi dituzten enpresak, eta beste aldetik, bere kutsadura neurtu eta kontrolatu nahi dituzten bezero partikularrak.

-INKESTAREN ONDORIOAK:

Guk uste dugu klima aldaketa arazo larri bat dela. Beraz, aplikazio bat sortu dugu kutsadura murrizten laguntzeko. Ez genekien ea gai hau jendearen kezketan sartzen zen edo ez, beraz inkesta baten bidez galdetegi bat prestatu eta ondorioak jaso ditugu. Orokorrean, jendeak arazo bat dagoela uste du.

Jende gehienak uste du aplikazio hau erabilgarria izango litzateke enpresentzat, baita guk ere.

Gure galderen bidez jakin ahal izan dugu, halaber, jendea behar baino gehiago kutsatzen duten enpresei isuna

jartzearen alde dagoela, gobernuei proposatuko dizkiegu isun hauek: isunak 500 euro eta 1.000 euro artekoak izango lirateke. Eta isun horiek gobernuaren sektore batek kontrolatu eta haztatuko lituzke, gure aplikazioa aurrerantz badoa.

Eta, azkenik, gure bezeroen iritziz, aplikazioa derrigorrezkoa izan beharko litzateke, jendea kontzientziatu dadin gure egunerokotasunean zenbat kutsatzen dugun eta enpresak gutxiago kutsatu dezaten.

Orokorrean, pozik gaude emaitzekin. Jendeak ondo hartu du gure proiektua eta bezero potentzialak aurkitu ditugu.

